

Zorionak ! Félicitations !

Euskara eman
La langue basque, un choix d'avenir(s)





AURKIBIDEA

SOMMAIRE

5

Euskara emanaz, bideak ireki
L'euskara, un véritable atout

15

Euskaraz urratsez urrats
L'euskara dès les premiers pas

29

Hizkuntza bat, hamaika begirada
Une langue aux mille visages



Euskara emanaz,
bideak ireki



L'euskara,
un véritable atout

Une langue bien vivante

Une langue millénaire

Antérieure à l'arrivée des Celtes, des Romains ou des Germains, déjà présente 2 000 ans avant notre ère, l'euskara est la plus ancienne des langues vivantes d'Europe de l'Ouest. Au fil des siècles, elle a conservé toute sa richesse.

À noter que le premier livre imprimé en basque, *Linguae Vasconum Primitiae*, date de 1545.

Une langue singulière

Langue originale, constituée d'un vocabulaire propre, l'euskara s'est enrichie de mots d'origine ibère, latine, gasconne, arabe et française, sans pour autant perdre sa singularité qui réside principalement dans sa syntaxe et sa conjugaison.

Une langue moderne

La langue basque est parlée par plus de 750 000 adultes, dont 51 200 dans les provinces du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule. Conséquence d'une forte émigration, principalement durant la première moitié du XX^e siècle, la langue basque est présente dans le monde entier.

Au Pays Basque, elle est enseignée à l'école, à l'université, utilisée dans les médias (TV, radio, presse écrite), sur Internet, dans la signalisation routière, dans les services publics, dans le domaine économique, culturel et social.

Euskara bizi-bizia

Jatorri zaharreko hizkuntza

Euskara, zeltak, erromatarrak eta germaniarrak etorri aitzinekoa da, gure aroa baino 2.000 urte lehenagokoa, hain zuzen. Beraz, Mendebaldeko Europako hizkuntza bizien artean, euskara da zaharrena. Mendeetan zehar, bere nortasuna eta aberastasuna osoki atxiki ditu. Informazio gisa, euskaraz inprimatu den lehenbiziko liburua 1545ekoa da: *Lingua Vasconum Primitiae*.

Hizkuntza berezia

Euskara jatorrizko hizkuntza da eta bere hiztegia badu. Iberiar, latin, gaskoi, arabiar eta frantses etorkizko hitzez aberastu da, baina bere berezitasuna ez du sekula galdu, hala nola sintaxia eta aditz-jokoa.

Hizkuntza modernoa

750.000 heldu baino gehiagok euskara mintzatzen dute, eta horietarik 51.200ek Lapurdin, Baxenabarren eta Xiberoan. Bereziki XX. mende hastapenean gertatu emigrazio handiaren ondorioz, euskara mundu osora hedatu zen.

Euskal Herrian, eskolan eta unibertsitatean euskaraz ikas daiteke eta arlo anitzetan erabiltzen da, hala nola hedabideetan (telebista, irratiak, kazetak), Interneten, bide-seinaleetan, zerbitzu publikoetan, ekonomian, kulturean eta arlo sozialean.



Un facteur d'épanouissement

Un facteur d'ancrage

L'apprentissage du basque permet à l'enfant de bien comprendre la pluralité, la richesse et l'originalité de la culture basque à travers ses différents aspects : littérature, bertsolarisme, poésie, chant, théâtre, mythologie... Ainsi, il aura la possibilité de contribuer à faire vivre la culture en langue basque, d'en devenir un acteur à part entière, de la partager avec ses aînés puis de la transmettre à son tour.

Un facteur d'ouverture

Chaque langue constitue une manière de voir et de dire le monde, d'exprimer des émotions et des valeurs, de transmettre des pratiques culturelles et sociales. En parlant deux langues (ou plus), l'enfant est amené à penser de différentes façons, et cela constitue un atout indéniable pour s'intéresser et s'ouvrir de manière confiante à d'autres cultures.



Erroak eta hegialak

Gurea ezagutzeko

Euskara ikasiz, haurrak euskal kulturaren aniztasuna, aberastasuna eta berezitasuna ulertzen ahalko ditu, bere alderdi guzietan: literaturan, bertsolaritzan, olerkietan, kantuetan, antzerkietan, mitologian. Euskal kultura biziarazten laguntzen ahalko du, honen eragile bilakatuz eta belaunaldien arteko lotura bermatuz.

Bestearekin zabalitzeko

Hizkuntza bakoitzak munduaren ikusteko eta errateko molde berezia badu, baita emozioak, balioak, kultura eta jendarte-praktiken adierazteko ere. Bi hizkuntza mintzatuz geroz, haurrak pentsamolde bat baino gehiago ukanen du beste kulturak konfiantzarekin deskubritzeko gogoia ukanen du.

Une chance pour votre enfant

Alors que le bilinguisme a longtemps été considéré comme un obstacle, les études linguistiques montrent que l'éducation bilingue est un excellent facteur de stimulation intellectuelle. La communauté scientifique qui étudie le langage reconnaît les bienfaits du bilinguisme pour le développement à long terme de l'enfant dans de nombreux domaines : conceptualisation, symbolisation, logique, souplesse intellectuelle, capacité à résoudre des problèmes.

Un plurilingue en herbe

Lorsqu'il évolue dans un environnement plurilingue, l'enfant effectue sans cesse des comparaisons entre les langues. Il prend ainsi conscience de chaque structure linguistique, ce qui facilite son apprentissage. Avec la syntaxe singulière de la langue basque, sans parenté aucune avec les langues latines, le bilinguisme français/basque accroît la gymnastique intellectuelle. Ainsi, l'acquisition précoce d'une seconde langue constitue une porte d'entrée vers le multilinguisme.

Les neurosciences le confirment

Une équipe du Massachusetts Institute of Technology de Cambridge a mis en avant les capacités accrues d'abstraction de l'enfant bilingue ainsi que son aptitude à s'adapter rapidement à un changement de règles du jeu, qui mobilise tout particulièrement des aires plus importantes du cerveau et accélère le développement cérébral.

Les neurologistes de Columbia University ont constaté chez des enfants bilingues que l'aire de Broca dans le cerveau gère avec facilité les deux langues, alors que les adultes qui apprennent une seconde langue doivent mobiliser un espace plus important de cette aire.



Haurkarentzat lagungarri

Hizkuntzalariek diote elebitasuna onuragarria dela haurren epe luzerako garapenarentzat, eta hori arlo anitzetan: kontzeptualizazioan, sinbolizazioan, logikan, malgutasun intelektualean eta buruketak ebazteko gaitasunean.

Eleaniztasunaren bidean

Irakaskuntza elebidunean, haurrak etengabe bi hizkuntzen arteko konparaketak egiten ditu eta horrela, berez, bakoitzaren egituraz ohartzen da, eta hizkuntza bakoitza hobeki menderatzen du. Gainera, inguruko hizkuntzekin batere loturarik ez duen sintaxia bereziari esker, euskararen erabiltzeak elebitasunaren ariketa intelektuala indartzen du. Azkenik, elebitasun goiztiarraren bidez eleaniztasunaren bidea irekitzen da: euskara gazte-gaztetik frantsesarekin batean ikasiz geroz haurrak etorkizunean beste hizkuntzak aiseago ikasiko ditu.

Neurozientzietik baieztatzen dute

Cambridgeko Massachusetts Institute of Technology unibertsitateko ikerlari talde batek azpimarratu du haur elebidunek abstrakziorako duten gaitasuna, baita joko-arau aldaketei lasterrago egokitzeko gaitasuna ere. Gaitasun horrek burmuineko eremu handiagoak behar ditu, eta denbora berean burmuinaren garapena zalutzen du.

Columbia Universityko neurologoak ohartu dira haur elebidunen Broca eremuak bi hizkuntzak aise kudeatzen dituela eta bigarren hizkuntza berantago ikasten duten helduek, aldiz, eremu horretako espazio handiagoa mobilizatu behar dutela. Emaizta horiek Montreal Neurological Institute and Hospital erakundeak egin ikerketek berretsi dituzte.

Un atout professionnel

De nombreux secteurs concernés

Grâce à l'école, votre enfant va non seulement savoir parler basque mais aussi le lire et l'écrire, ce qui est aujourd'hui un atout indéniable dans de nombreux secteurs : enseignement avec le développement continu des filières bilingues, métiers de la communication et du journalisme, métiers des loisirs et de l'animation, agriculture, santé, social, tourisme, services publics, services à la personne, relations avec les acteurs de la Communauté Autonome d'Euskadi et de la Communauté Forale de Navarre.

Une offre d'enseignement adaptée

Pour répondre à la demande croissante de professionnels bascophones, certains lycées proposent aujourd'hui des formations bilingues conduisant à des bacs technologiques ou professionnels dans les secteurs de la petite enfance, de la santé et du social ou de la vente et du commerce. Concernant l'enseignement privé confessionnel, c'est le cas des lycées Saint Joseph d'Ustaritz, Sainte Anne et Cantau d'Anglet et Frantsesenia de Saint-Jean-Pied-de-Port ainsi que concernant l'enseignement immersif de la fédération Seaska, du lycée Bernat Etxepare de Bayonne.



Laura DELAPORTE ABA (Ama-eskoletan berezitu agentea)
ASEM (Agent spécialisé des écoles maternelles)

“

Je suis ASEM à l'ikastola Baigura de Mendionde depuis septembre 2016. Il y a un an, j'ai appris le basque grâce à une formation intensive de 6 mois proposée par AEK. Je suis née à Paris et je suis arrivée au Pays Basque quand j'avais 8 ans. Je n'avais pas eu l'opportunité d'apprendre le basque à cette époque, puisque j'étais déjà grande. C'était dur de vivre dans un petit village, d'entendre beaucoup parler basque mais de ne rien comprendre. Ça a été pour moi une grande chance de pouvoir apprendre le basque. Ça n'a pas toujours été facile mais j'y suis arrivée et j'en suis très contente.


Concernant le travail, après la formation, j'ai postulé à 2 postes près de chez moi. J'ai passé les entretiens et j'ai été retenue à Mendionde. Même si ça n'est pas toujours facile au niveau de la langue, ça se passe très bien.

Joan den irailaz geroztik Lekorneko Baigura ikastolan ABA gisa lan egiten nuen. Duela urte bat, euskara ikasi nuen 6 hilabetez AEK-ko formakuntza trinkoaren bidez. Parisen sortu nintzen eta 8 urte nituelarik etorri nintzen Euskal Herrira. Jadanik tarrotua bainintzen, ezin izan nuen euskara ikasi garai hartan. Aski zaila zen herri ttipi batean bizitzea, euskara anitz entzutea eta deus ez ulertzea. Enezat xantza handia izan da euskararen ikastea; ez da beti erraza izan, baina lortu dut eta biziki kontent naiz.

Lanaren aldetik, formakuntzaren ondotik, 2 lanpostutan aurkeztu nuen ene burua (ene etxetik hurbil zirenak). Elkarrizketak egin nituen eta lana lortu nuen Lekornen. Nahiz eta hizkuntzaren aldetik ez den beti aise, biziki ontsa pasatzen da.

”

Lanerako abantaila



Arlo anitzetan baliagarria

Eskolari esker, haurrak euskara mintzatzen jakinen du, baita irakurtzen eta idazten ere, eta hori abantaila ukaezina da gaur egungo ofizio frankotan: etengabe garatzen den irakaskuntza elebidunean, komunikazio lanbideetan, kazetaritzan, aisialdi eta animazio lanbideetan, laborantzan, osasun eta sozial arloan, turismoan, jendeenganako zerbitzuetan eta zerbitzu publikoetan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroako Foru Komunitateko eragileekilako harremanak laguntzen ditu.

Irakaskuntza eskaintza egokitua

Arlo anitzetan profesional euskaradunen eskaera gero eta handiagoa da, eta horri erantzuteko, zenbait lizeok baxo teknologiko edo profesioaletara buruz doazen formakuntza elebidunak proposatzen dituzte. Honela, irakaskuntza giristinoan, Uztaritzeko San Josepe, Angeluko Santa Ana eta Cantau, Donibane Garaziko Frantsesena lizeoek eta Seaska federazioaren murgiltze irakaskuntzan Baionako Bernat Etxepare lizeoak, eskaintza zabala dute: haur ttipien arloan, osasungintzan eta sozial arloan, edota salmentan eta merkataritzan.

CÉCILE GROUSPEYRE *Frantsesena lizeoko zuzendaria*
Directrice du lycée Frantsesena



“ Quel que soit le secteur professionnel, il me paraît utile de maîtriser la langue basque pour travailler au Pays Basque. Ainsi, dans les secteurs de la santé ou du social, on obtient plus facilement la confiance des enfants, des malades ou des personnes âgées en leur parlant basque. L’usage de la langue maternelle facilite et enrichit la relation. Aujourd’hui, pour un recrutement, à diplôme équivalent, la priorité sera souvent donnée à un bascofhone.

De même, un agriculteur développera plus aisément ses relations professionnelles et de nouveaux marchés tant en Iparralde qu’en Hegoalde s’il parle l’euskara.

Le secteur de l’animation manque d’animateurs bascofones et formés en langue basque. C’est pourquoi, depuis 2011, nous proposons à Frantsesena la formation au Brevet d’Aptitude aux Fonctions d’Animateur (BAFA) bilingue – en basque et en français.

Au sein de notre lycée, nous nous efforçons d’accorder de plus en plus de place à la langue basque, entre collègues, avec les élèves et les familles, et cela, au quotidien.

Nos élèves pourront ainsi faire valoir le bilinguisme comme une compétence supplémentaire au moment de leur recherche d’emploi. Nos anciens élèves peuvent en témoigner !

Edozein arlotan lan egiteko, iduritzen zait euskara menderatzea beharrezkoa dela Euskal Herrian.

Adibidez, osagarri eta sozial mailan, haur ttipiei, eriei edo adineko jendeeri euskaraz mintzatuz geroz, beren konfiantza aiseago lor daiteke. Ama hizkuntza erabiltzeak harremana goxatzen eta aberasten du ere. Gaur egun, hein bereko diploma ukanik ere, usu euskara dakien bati zaio lehenasuna ematen.

Halaber, euskara dakien laborariak, bere salerospenak errazkiago egiten ditu eta merkatu edo salbide berriak hobeki garatzen, bai Iparraldean bai Hegoaldean.

Animazio sailean ere, langile euskaldunak eta euskaraz ikasi dutenak eskas dira. Hortakotz, 2011z geroztik, Frantsesengan, urtero antolatzen dugu Animatzaile Izateko Gaitasun Agiria (AIGA) formakuntza elebiduna —euskaraz eta frantsesez—.

Gure lizeoan euskarari joanago eta gehiago leku ematen eta eman nahi diogu, langileen artean, ikasleekin eta burasoekin erabiliz eguneroko bizian.

Gure ikasleentzat, elebitasuna gaitasun gehigarria da lan bila hasten direnean. Ikasle ohiak hor ditugu lekuko!



Euskaraz
urratsez urrats



L'euskara
dès les premiers pas

La transmission familiale : naturellement !

La transmission familiale est la voie la plus naturelle et donc, quand elle est possible, il est important que la langue basque soit présente à la maison et dans l'environnement immédiat de l'enfant. La famille est un maillon important, au même titre que la crèche et l'école.

Avec les parents, évidemment !

Les parents jouent un rôle essentiel dans la transmission d'une langue. En utilisant (dans le cas de parents bascophones) et en valorisant le basque (y compris si les parents ne le savent pas) les parents ont la possibilité d'offrir à leur enfant un cadeau pour la vie.



DEUX PARENTS BASCOPHONES

En parlant basque à la maison, l'enfant va acquérir un langage riche et expressif mais aussi une facilité à s'exprimer.

Il va s'approprier un vocabulaire affectif et des expressions plus familières qui ne sont pas forcément enseignées dans un cadre formel comme l'école.

Lors de l'apprentissage, les enfants intériorisent naturellement les subtilités et les habitudes d'utilisation de la langue.

La Rochefoucauld pensait que « rien n'est aussi contagieux que l'exemple » : si entre eux, les adultes bascophones parlent en basque, les enfants les imiteront sûrement.



UN PARENT BASCOPHONE, L'AUTRE NON

Le fait de parler plusieurs langues au sein d'un même foyer est une situation très répandue, ici comme partout dans le monde.

Un parent, une langue : adressez-vous à votre enfant chacun dans votre langue. Ainsi votre enfant aura la chance d'être bilingue très jeune. Les enfants vivent cette situation tout à fait normalement.

Le parent ne parlant pas basque emploiera la langue qu'il maîtrise. Il pourra toujours montrer son attachement à la langue basque via le jeu et le chant ou en lisant des contes, par exemple. De plus, les enfants qui apprennent le basque en crèche ou à l'école deviennent rapidement des petits professeurs en herbe !

Même si ce n'est pas la langue du couple il est important que le parent bascophone parle basque à ses enfants (cf. les remarques de l'encadré « Deux parents bascophones »).



DEUX PARENTS NON-BASCOPHONES

Aujourd'hui la majorité des parents d'élèves ne parlent pas basque mais souhaitent que leurs enfants l'apprennent.

Puisqu'ils ne peuvent pas transmettre le basque par eux-mêmes, ils peuvent le faire indirectement :

- En expliquant à leur enfant qu'ils ne parlent pas la langue mais qu'ils souhaiteraient que lui l'apprenne et la pratique.
- En faisant en sorte que la langue basque soit présente dans l'environnement immédiat de l'enfant (comptines, berceuses, contes, etc.) dès les premiers mois.
- En utilisant les autres lieux de transmission de la langue basque (cf. page 22, Les relais de la famille).

Familia transmisioa: naturalki!

Familia transmisioa bide naturalena da, eta, beraz, posible delarik, etxean eta haurraren inguru hurbilean euskarak eginahala presentzia handia ukaitea funtsezkoa da. Hartzaindegiaren eta eskolaren gisan, katebegi inportantea da.

Burasoekin, bistan dena!

Mintzaira bat transmititzerakoan burasoek funtsezko egitekoa eta eragina dute. Buraso euskaldunek euskara baliatuz eta erdaldunek euskarak duen inportantziaz ohartaraziz seme-alabei bizi guziko oparia egin diezaiekete.



BI BURASOAK EUSKALDUNAK

Etxean euskara mintzatuz geroz, haurrak hizkuntza aberatsa eta bizia bereganatuko du, eta, beraz, euskaraz aise ariko da.

Familian etxeko euskara mintzatuz geroz, eta hizkuntza bizia eta adierazkorra erabiliz geroz (ikus “Batua edo euskalkia” laukia) haurrak eskolako euskara formalagoaren osagarri diren hizkera molde informalak ikasiko ditu. Horrela edozein egoeratan euskaraz moldatzeko gai izanen da.

Bestalde, haurrak, hizkuntza ikasten ari denean, mintzairaren ñabardurak eta haren baliatzeko ohiturak ere bereganatzen ditu. Zer ikusi, hura ikasi. Helduen artean euskaraz ari izanez geroz haurrak berdinekin egiten du.



BURASO BAT EUSKALDUNA, BESTEA EZ

Lasai, mundu guzian barna arrunta da egoera hori. Haurrekin bakoitzak ontsa dakien hizkuntza mintzatzea da egokiena; hola eginez haurra ttipidanik elebiduna izanen da, eta egeora hori arras normala eginen zaio.

Bere hizkuntzan ari izanik ere buraso erdaldunak euskararentzat duen atxikimendua beste gisa batez adieraz dezake, konparazioe, konparazioe kantuetan eta jokoen bidez edo euskarazko ipuinak irakurriz. Bestalde, haurra koskortuz gero irakasle bilaka daiteke ingurukoentzat!

Euskara bikotearen mintzaira ez izanik ere, euskara dakien burasoak seme edo alabarekin erabil dezan zinez inportantea da (ikus «Bi burasoak euskaldunak» laukia).



BI BURASOAK ERDALDUNAK

Buraso frankok, euskaldunak ez izanik ere, euskara transmititzeko hautua egiten dute. Egungo egunean eskola elebidunetako (murgiltze eta parekotasun sistemetan) haurren burasoen gehiengoa erdalduna da. Bi buraso erdaldunak ezin baldin badute euskara zuzenean transmititu, zeharka, aldiz, posible dute. Nola?

- Hori egin dezakete haurrari esplikatu ez diotela euskara ematen, baina, aldiz, euskara ikas eta erabil dezan nahi luketela.
- Lehenbiziko hilabeteetatik euskara haurraren ingurumen hurbilean sartuz (josteta eta sehaska kantuen bidez, ipuinen bidez, etab.).
- Gainerateko transmisio guneak erabiliz (ik. 22. orrialdea, Familiaren osagarri).



Avec l'entourage également !

De nos jours, la majorité des parents ne maîtrise pas suffisamment la langue pour élever leurs enfants en basque. De plus, les deux parents ayant souvent une activité professionnelle, les enfants peuvent être amenés à passer beaucoup de temps avec d'autres membres de famille, notamment avec les grands-parents.

Dans ce contexte, les bascophones présents dans l'entourage de l'enfant jouent un rôle essentiel. Et la première chose que les grands-parents, oncles et tantes, cousins-cousines, voisins-voisines ou ami(e) des parents peuvent faire est tout simplement de parler en basque aux enfants !

Jouez avec votre enfant !

À travers le jeu les enfants acquièrent les règles et stratégies nécessaires pour vivre en société. En parlant basque ou en utilisant quelques mots (dans le cas des non-bascophones), en mariant jeu et langue basque dès les premiers mois, l'enfant associera la langue basque au plaisir de jouer. Un jouet n'est pas forcément nécessaire pour jouer. Les tâches quotidiennes peuvent se transformer en jeu : faire les courses, ranger, s'habiller etc.

« Toutes les occasions sont bonnes pour utiliser des mots basques lorsque vous jouez avec votre enfant, et même si vous n'êtes pas bascophones. »

La langue elle-même peut devenir un jeu. Dès qu'il commence à apprendre des mots, l'enfant a envie de jouer avec eux. Plus les proches lui parleront, plus l'enfant apprendra à réfléchir et à s'exprimer.

Lexique de la famille

Bébé : Ninia

Enfant : Haurra

Fille : Alaba

Fils : Semea

Frère : Anaia

Sœur (d'un garçon) : Arreba

Sœur (d'une fille) : Ahizpa

Maman, Mère : Ama

Papa, Père : Aita

Parents : Gurasoak

Grand-mère : Amatxi

Grand-père : Aitatxi

Ingurukoekin ere bai!

Egungo egunean buraso anitz erdaldunak dira edo ez dira seme-alabak euskaraz hezteko aski trebe. Bestalde, ardura bi burasoak kanpoan lanean ari baitira, haurrak familiako beste ahaideekin iragaten du denbora franko, bereziki aitatxi-amatxiekin.

Testuinguru horretan, inguruko euskaldunen rola funtsezkoa da eta izan Aitaxi-Amatxi, Otto-Ttantta, kusi, auzo edo burasoen lagun, inguruko euskaldunek egin dezaketzen lehen urratsa da sinpleki haurrari euskaraz mintzatzea!

Haurrarekin euskaraz josteta ari izan!

Josteta aritzea jatea eta lo egitea bezain beharrezkoa da. Haurrak jokoaren bidez, urratsez urrats, jendartean bizitzeko jokabideak eta estrategiak bereganatzen ditu.

Jokoa eta euskara lehenbiziko hilabeteetatik uztartuz, euskaldunek euskaraz eginez eta erdaldunek euskarazko hitz batzuk baliatuz, haurrak euskara eta plazera lotuko ditu.

Josteta aritzeko ez da bortxaz jostailurik behar; egun guzietako egitekoak joko bilaka daitezke: erosketak egitea, ganbera biltzea, beztitzea.

«Har ezazue tarteño bat seme edo alabarekin euskaraz josteta aritzeko».

Hizkuntza bera jokoa da. Lehenbiziko hilabeteetatik jadanik, ikasten dituen hitzekin jostatzeko gogoia du haurrak. Etxekoek zenbat eta gehiago hitz egin, hainbat eta hobeki ikasiko du haurrak bere gogoetak bai eta bere sentimenduak adierazten.

Petite-fille : Alabatxia/Biloba

Petit-fils : Semetxia/Biloba

Oncle : Osaba/Otto

Tante : Izeba/Ttantta

Marraine : Amabitxia/Ugazama

Parrain : Aitabitxia/Ugazaita

Cousin(e) : Kusia/Lehengusua

Familiako
hiztegiñoa

Basque unifié ou bien dialectes ?

« Il faut que nous ayons bien en tête que nous avons besoin à la fois du basque unifié et des dialectes (variantes locales) ; que le basque unifié remplit certaines fonctions et les dialectes en remplissent d'autres. Basque unifié ou dialectes, quel est le meilleur choix ? Je dis toujours que la langue est comme une chaussure. Vaut-il mieux choisir des chaussures de montagnes ou des tongs ? Pour aller à la montagne, des chaussures de montagne, et pour aller à la plage, des tongs ».

Batua ala euskalkia?

«Buruan sartu behar duguna da bai euskara batua eta bai euskalkiak beharrezkoak ditugula; eta euskara batuak dituela eginkizun batzuk, eta euskalkiak dituela beste batzuk. Zein da hobea? Nik beti esaten dut hizkuntza oinetakoa bezala dela. Zein dira hobek, mendiko botak edo txankletak (hondartzako espartinak)? Mendira joateko, botak, eta hondartzara joateko, txankletak».

■ KOLDO ZUAZO

Professeur de dialectologie et de sociolinguistique à l'Université du Pays Basque.
EHUko irakaslea, dialektologian eta soziolinguistikan.

Pour en savoir plus sur les dialectes - Euskalkiez gehiago jakiteko: www.euskalkiak.eus



Comment accompagner son enfant ?

« Entre 0 et 4 ans, l'enfant dispose d'une capacité neuronale maximale. C'est ce que l'on appelle « l'Age du langage ». Lorsque les parents ne peuvent assurer un suivi en basque, ils peuvent aider leur enfant par la claire affirmation de leur désir d'une éducation bilingue, en montrant de l'intérêt pour cette langue, ou encore, en prenant le rôle d'élèves apprenant le basque auprès de leur enfant qui en sait très vite davantage qu'eux. »

Bere haurren nola lagundu?

« 0 eta 4 urte artean du haurrak neurona-gaitasun handiena. « Hizkuntzaren adina » erraten zaio horri. Burasoek ezin dutelarik eskolako lanaren jarraipena euskaraz egin, haurra laguntzen ahal dute argiki erranez hezkuntza elebiduna nahi dutela, euskarari buruz interesa erakutsiz, eta euskara beren haurraren gainetik ikasiz, haurrak, biziki fite, burasoak baino gehiago jakinen baitu. »

■ GILBERT DALGALIAN
Psycholinguiste
Psikolinguista



Les relais de la famille

Les structures et les professionnels de la petite enfance occupent une place importante dans notre société. Leur rôle est donc essentiel pour la transmission de la langue, en tant que relais de la cellule familiale ou en tant que premier maillon de transmission.

L'âge d'or du langage

Pour Fred Genesee, psycholinguiste et chercheur au département de psychologie de l'Université McGill de Montréal, le cerveau du jeune enfant est fait pour apprendre deux langues en même temps sans se surcharger ni subir de retard dans le développement du langage.

On croit souvent que le mélange des langues est signe de confusion, comme lorsque l'enfant utilise des mots anglais dans une phrase en français et vice-versa. Un enfant qui apprend deux « premières » langues conjointement passe souvent de l'une à l'autre. C'est normal, et cette tendance s'estompera avec le temps.

La recherche démontre que, même s'il joue entre les langues, l'enfant distingue bien chacune d'elles. S'il les mélange, c'est parce qu'il ne trouve pas le mot ou le concept qu'il voulait exprimer dans l'une d'entre elles : il va alors puiser dans l'autre langue le mot qu'il cherchait.

Une qualité d'accueil certifiée

L'ACCUEIL COLLECTIF EN CRÈCHE

Les établissements qui proposent un accueil en langue basque bénéficient depuis 2008 d'un label dénommé LEHA délivré par l'OPLB, le Conseil Départemental, la CAF et la MSA.

Ce label définit trois modèles linguistiques, favorisant à la fois le bien-être de l'enfant et la transmission de la langue.

LES MAISONS D'ASSISTANTES MATERNELLES (MAM)

Les assistant(e)s maternel(le)s agréé(e)s ont la possibilité d'exercer en dehors de leur domicile en accueillant les enfants dans des Maisons d'Assistants Maternelles (MAM).

Il existe plusieurs MAM qui proposent un accueil en langue basque.

L'ACCUEIL FAMILIAL

Des assistantes maternelles titulaires d'un agrément délivré par le Conseil Départemental proposent un accueil en langue basque à leur domicile.

Familiaren osagarri

Lehen haurtzaroko egiturek eta profesionalek leku garrantzitsua dute gure jendartean. Hots, hizkuntzaren transmisioan funtsezko eragina dute, familia egituraren segida hartuz edo mintzairaren irakaskuntzan lehen urratsak segurtatuz.

Mintzairaren urrezko aroa

Quebeceko Montréal hiriko McGill unibertsitatean psikologia sailean ikertzailea den Fred Genesee psikolinguistak dioenez, haurraren burumuina bi hizkuntza aldi berean ikasteko gai da, mintzairaren garapenean gibelamendurik pairatu gabe eta lan handiagorik eskatu gabe.

Haurrak bi hizkuntzak nahasten dituelarik, uste da bere baitan nahasmendua badela, adibidez, erranaldi batean ingelesezko hitzak erabiltzen dituelarik, eta alderantziz. Bi hizkuntza batean ikasten ari den haurrak usu batetik bestera jotzen du. Normala da eta denborarekin gero eta gutiago gertatuko zaio.

Ikerketa horrek erakustera ematen du, haurra bi hizkuntzekin jostatzen baldin bada ere, ontsa dakiela mintzairak bereizten. Hizkuntza batean hitza edo kontzeptua nola erran ez baldin badaki, orduan beste hizkuntzan erranen du.

Harrekararen kalitatea bermatua

TALDE-HARRERA

Euskarazko harrera eskaintzen duten egiturak, 2008az geroztik, LEHA izeneko labelpean dira. EEP, Departamenduko Kontseilua, Baionako CAF eta MSA erakundeek ematen duten label honek hiru hizkuntza eredu proposatzen ditu, eta euskararen transmisioa sustazearekin batean haurraren ongizatea segurtatzen du.

HAURTZAIN-ETXEAK

Onetsiak diren etxe-hurtzainek beren etxetik kanpo lan egin dezakete, “haurtzain-etxea” deitu egoitza batean haurrak errezibituz.

Euskarazko harrera eskaintzen duen haurtzain-etxe bat baino gehiago bada.

FAMILIAKO HARRERA

Departamenduko Kontseilutik baimena ukan duten hainbat etxe-hurtzainek haurrak beren etxeetan euskaraz errezibitzen dituzte.

Une offre d'enseignement complète

TROIS FILIÈRES DISTINCTES

- Enseignement public,
- Enseignement privé confessionnel (sous contrat d'association relevant de la Direction Diocésaine de l'Enseignement Catholique),
- Enseignement privé associatif (sous contrat d'association relevant de la fédération Seaska)

Sur l'ensemble du territoire, plus de 13 100 élèves suivent un enseignement bilingue, de la maternelle à la terminale et dans les trois filières :

TROIS MODÈLES COMPLÉMENTAIRES

PARITÉ HORAIRE

Dans les écoles publiques et privées catholiques, l'enseignement est dispensé pour moitié en basque et pour moitié en français, de la maternelle au CM2. L'ensemble des matières est enseigné dans les deux langues.

Enseignement hebdomadaire	Maternelle	CP	CE1	CE2	CM1	CM2	Secondaire
→ En basque	12h	12h	12h	12h	12h	12h	Volume horaire selon établissement
→ En français	12h	12h	12h	12h	12h	12h	

BASQUE RENFORCÉ

Dans les écoles publiques et privées catholiques les équipes pédagogiques peuvent faire le choix, en accord avec les autorités académiques, d'augmenter le temps d'enseignement en langue basque. Ainsi, certaines écoles bilingues proposent un enseignement en langue basque à temps plein (24h) en maternelle. L'enseignement se poursuit ensuite à parité horaire.

Enseignement hebdomadaire	Maternelle	CP	CE1	CE2	CM1	CM2	Secondaire
→ En basque	24h*	12h	12h	12h	12h	12h	Volume horaire selon établissement
→ En français	/	12h	12h	12h	12h	12h	

* durant les 2 ou 3 premières années

L'IMMERSION

